

Filosofiako Gradua



HEZKUNTZA, FILOSOFIA
ETA ANTROPOLOGIA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN, FILOSOFÍA
Y ANTROPOLOGÍA

| DONOSTIA | SAN SEBASTIÁN |



HEFA Eraikin I, Tolosa hiribidea 70 20018 DONOSTIA (Gipuzkoa)
hefa.idazkaritza@ehu.eus hefa.practicum@ehu.eus

Filosofiako Gradua

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea

IKASKETEN DESKRIBAPENA

Izaera unibertsala duenez eta garai, kultura, hizkuntza eta jakintza guztiekin etengabeko harremana duenez, Mendebaldeko historiaren eta Gizadiaren historiaren funtsezko alderdia da Filosofia. Filosofiako ikasketen bidez, prestakuntza egokia har daiteke munduaren gaineko ikuspegiak era koherentean uztartzeko eta giza esperientziaren tradizio eta esparruen artean elkarriketa arrazionala sustatzeko.

Ikuspegi partziala eskaintzen duten beste ikasketa espezializatu batzuk ez bezala, Filosofia diziplina anitz biltzen ditu; horri esker, ezaugarri berezi hauek dituzte bai Filosofia bai hartan adituak diren pertsonak:

- Arazo eta kontzeptu unibertsalak edo/eta zeharkakoak edo/eta orokorrak aztertze edo ikertze interesa. Adibidez, zentzurik orokorrean ulertuta, ezagutzaren kontzeptua edo errealtatearen egituraren arazoa edo hizkuntza/mundua/pentsamendua arteko erlazioa lantzeko interesa.
- Ikuspegi integratzailea. Berezi, naturari eta gizakiari berari buruzko ezagutzaren ikuspegi integratzailea.
- Ikuspegi kritikoa eta argudiatua, giza jardueraren askotariko alderdi teorikoei nahiz praktikoei dagokienez.
- Zientziak (zentzu orokorrean hartuta) erantzun egokirik ematen ez dien arazoen azterketa sistematizatua.
- Balioekin (balio etiko, politiko, estetiko, epistemikoein), oro har, eta giza jokabidearen ondorioekin loturiko auzien trata-mendua (Filosofia praktikoen xedea).

SARTZEKO PROFILA

Gogoeta filosofikoaren izaera eta Filosofia ikasteak zer jardueratarako sarbidea eskaintzen duen kontuan hartuta, gradu honetara sartzeko profil jakin bat finkatzea komeni da. Honako hauek dira profilaren ezaugarriak:

- Jarrera kritikoa eta, aldi berean, irekia edukitzea giza izatearekin loturiko arazo unibertsalei buruz.
- Jakin-min intelektuala izatea.
- Gogoeta ariketa egiteko eta argudiatzeko joera izatea.

Honako gaitasun hauek datoz profil horrekin bat:

- Análisi, sintesi eta kritikarako gaitasuna.
- Askotariko testuinguruetan murgiltzeko gaitasuna. Aniztasuna aintzat hartzea eta errespetatzea.
- Ikerketarako interesa.
- Antolaketa, planifikazio eta arazoen ebazpenerako eta erabakiak hartzeko interesa.
- Abstrakzioarako eta orokortzeko gaitasuna, eta funtsezko alderdiak alderdi osagarriak bereizteko gaitasuna.

IKASKETEN ANTOLAMENDUA:

Kredituak						
Ikasturtea	Enborreko oinarriko irakasgaiak	Beste enbor batzuetako oinarriko irakasgaiak	Nahitaezkoak	Gradu Amaierako Lana	Hautazkoak	Guztira
1. maila	36	24				60
2. maila			60			60
3. maila			60			60
4. maila				12	48	60
Guztira	36	24	120	12	48	240

■ TITULUAREN PROGRAMA

Lehenengo maila oinarrizkoa da (humanitateetako eta gizarte-zientzietako edozein ikaslerentzat aproposa); eta, hortik aurrera, bigarren eta hirugarren mailetan, nahitaezko irakasgai guztiak landuko dituzte Filosofiako ikasleek. Azkenik, laugarren mailan, hautazko irakasgaiak besterik ez dira landuko. Laugarren mailan, bestalde, ikasleek gradu amaierako lana egin beharko dute. Ikasleek borondatezko praktikak ere egin ahal izango dituzte; praktika horien truke hautazko 6 kreditu jasoko dituzte, gehienez ere.

GARRANTZIZKO OHARRA: Lehen maila Antropologiako graduarekin batera egiten da, osoosorik; gradu hori ere Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean egiten da. Bigarren mailatik aurrera, Filosofiako eta Antropologiako graduak bereizi egiten dira, baina irakasgai komun batzuk dituzte (Zientziaren Filosofia I, Zientziaren Filosofia II, Estetika Garaikidea, eta Filosofia eta Literatura. Ikus Antropologiako gradua).

IRAKASGAIEN BANAKETA, MAILA ETA LAUHILEKOEN ARABERA

(Irakasgai guztiak 6 kreditukoak dira)

LEHENENGO MAILA

LEHENENGO LAUHILEKOA

Pentsamenduaren Historia I
Antropologiarako Sarrera I
Filosofiarako Sarrera I
Soziologia
Filosofiako Oinarrizko Testuak.

BIGARREN LAUHILEKOA:

Pentsamenduaren Historia II
Antropologiarako Sarrera II
Filosofiarako Sarrera II
Etika
Antropologiako Oinarrizko Testuak

BIGARREN MAILA

LEHENENGO LAUHILEKOA:

Estetika eta Arteen Teoria I
Filosofia Politikoa I
Antzinako Filosofiaren Historia
Hizkuntza Klasikoak
Logika I

BIGARREN LAUHILEKOA:

Ezagutzaren Teoria I
Hizkuntzaren Filosofia I
Erdi Aroko Filosofiaren Historia
Etika II
Logika II

HIRUGARREN MAILA

LEHENENGO LAUHILEKOA:

Zientziaren Filosofia I
Hizkuntzaren Filosofia II
Filosofia Politikoa II
Aro Berriko Filosofiaren Historia
Metafisika I

BIGARREN LAUHILEKOA:

Estetika eta Arteen Teoria II
Zientziaren Filosofia II
Filosofia Garaikidearen Historia
Ezagutzaren Teoria II
Metafisika II

LAUGARREN MAILA

LEHENENGO LAUHILEKOA:

Antropologia Filosofikoa
Gaur Egungo Eztabaida Etikoak
Euskararen Arauak eta Erabilera
Gogoaren Filosofia
Zientzien Filosofia eta Historia
Justizia eta Eskubideak, XXI. Mendean
Antzinako eta Erdi Aroko Filosofiako Oinarrizko Obrak

BIGARREN LAUHILEKOA:

Garaiko Estetika
Filosofia eta Literatura
Filosofia, Zientzia eta Gizartea
Filosofia, Logika eta Hizkuntza,
Komunikazioa Euskaraz: Giza Zientziak eta Gizarte-zientziak
(Filosofia eta Antropologia)
Aro Berriko Filosofiako Oinarrizko Obrak
Filosofia Garaikideko Oinarrizko Obrak

■ MODULUAK ETA IRAKASGAIK

Goian aipatutako irakasgai guztiak moduluka antolatuta daude. Adibidez, Filosofiaren Historia deritzon moduluaren barruan bilduta daude Antzinako Filosofiaren Historia, Erdi Aroko Filosofiaren Historia, Aro Berriko Filosofiaren Historia eta Filosofia Garaikidearen Historia irakasgaiak.

Filosofiako gradu berrian, modulu bakoitzak atxikita edukiko ditu, moduluari loturiko gaitasun espezifikoaren sorta batez gainera, irakaskuntza-koordinaziorako mekanismo bat eta ebaluazio- eta jarduera-sistema propioa.

■ GAZTELANIA-EUSKARA-HIRUGARREN HIZKUNTZAREN SUSTAPENA (INGELESA)

EUSKARA/GAZTELANIA. Gradu berriko oinarriko eta nahitaezko irakasgai guztiak (hau da, lehenengo hiru mailak, oso-osorik) gaztelaniaz nahiz euskaraz eskainiko dira; hautazko ikasgaiak, aldiz, gaztelaniaz edo euskaraz izango dira.

Gradu amaierako lana euskaraz nahiz gaztelaniaz egin daiteke.

INGELESA. Honako irakasgai hauek ingelesez irakatsiko dira: Zientziaren Filosofia I, Hizkuntzaren Filosofia I eta Logika I.

Ingeleseko eskaintza zabaltzea da xedea, ikasleek aukera zabalagoa izan dezaten eta irakasgai bat, gutxienez, ingelesez ikasi ahal izan dezaten. Filosofiako sailetan, eskolak ingelesez, frantsesez eta alemanez emateko prestatutako irakasleak daude.

■ MUGIKORTASUN-PROGRAMAK

Ikasleen mugikortasuna areagotu egin da azken urteetan –eta datozen urteetan ere gertatuko da–, bai beste unibertsitate batzuetan egonaldia egitera joaten diren ikasleen kopuruari dagokionez bai lekualdatzeko aukerei dagokionez ere.

Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak, Filosofiako graduako ikasketak egiten diren fakultateak, UPV/EHUk sustatutako mugikortasun-programetan parte hartzen du: SICUE-SENECA, ERASMUS, LATINOAMERIKA ETA BESTE TOKI BATZUK.

Programa, toki, araudi eta abarrei buruzko informazioa honako webgune honetan kontsulta daiteke:
<http://www.relaciones-internacionales.ehu.es/p274-home/es/>

■ BORONDATEZKO PRAKTIKAK

Profil balioaniztunari dagozkion gaitasunak barneratzeko (ikus GRADUDUNAREN PROFILA), laugarren mailan borondatezko praktikak egiteko sare bat diseinatuko da. Ikasleek kreditu akademikoak eskuratu ahal izango dituzte (6 kreditu, gehienez ere). Honako erakunde eta elkarte hauek hartu dute praktika horiek antolatzeke lankidetzan jarduteko konpromisoa: Euskal Idazleen Elkarte, Elhuyar, Donostiako Erietzeko Laguntzako Etika Batzordea, Arduraren Paliatiboetarako Euskal Elkarte, Tabakalera (Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa).

■ ESKURATUTAKO GAITASUNAK

Hauek dira Filosofiako graduari dagozkion gaitasun espezifikoak:

- Teoria eta ideia filosofikoen oinarriak era aktiboan ulertzea eta era kritikoan interpretatzea, bai ikuspegi historikotik bai ikuspegi tematikotik, eta gaur egungo egoeren analisisian aplikatzea.
- Filosofiarekin lotura duten gaien buruzko hitzaldi laburrak eta ongi egituratuak irakurtzea, ulertzea, ahoz azaltzea, eztabaiatzea, kritikoki aintzat hartzea eta argudioak emanez idaztea.
- Hainbat iturritako datu adierazgarriak biltzea, arazoak ikuspegi filosofikotik eta kideko beste diziplina batzuk aintzat hartuta aztertzeke eta konpontzeke.
- Taldean nahiz bakarka lan egitea, oinarriko eskubideen errespetuan (berdintasuna, generoa...) oinarrituriko bizimoduak integrazteari begirako proiektuak gauzatzeko erabakiak hartzeke eta arazoei irtenbideak emateke.
- Arrazoibideen zuzentasuna eta sendotasuna identifikatzea eta ebaluatzea, eta, hala dagokionean, falaziei antzematea; eta argudioak ematea, besteak gogatzeko moduan eta hizkuntza argi eta zehatza erabiliz.
- Askotariko hizkuntza-erregistroak (akademikoa, dibulgaziokoa eta lagunartekoa) erabiltzea, norberaren hizkuntzan, Filosofiako terminologia erabiltzea, eta diskurtso filosofikoak ulertzea, EBko gutxienez beste bi hizkuntzatan.
- Konpromiso sozialak eta etikoak hartzea, desberdintasuna eta aniztasuna errespetatzea eta egoera berrietara moldatzeko, malgutasunez jokatzeko eta irudimenez aritzeko gaitasuna izatea.
- Informazioaren teknologiak erabiltzea datuak biltzeko eta trukatzeko: testuprosesadorea, posta elektronikoa, Internet, bibliografia-datuen baseak...

■ GRADUDUNAREN PROFILA

Goian aipatutako gaitasunak hartuz, gradudunak jasoko duen prestakuntza orokorrari esker, Filosofiako tituludunek amaierako hiru profil profesioaletan berme osoz jarduteko gaitasunak, ezagutzak, motibazioa eta baliabideak (kontzeptuzkoak, instrumentalak nahiz orotarikoak) bereganatuko dituzte.

- 1.- Filosofiako irakasgaien irakaskuntza, Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan eta Unibertsitatean. Filosofiako graduiko ikasketen bidez, diziplina anitzeko prestakuntza lortzen da (lau jakintza-arlo hauen bidez: Estetika eta Arteen Teoria, Filosofia, Filosofia Morala eta Politikoa, eta Zientziaren Logika eta Filosofia), eta prestakuntza horrekin, gradudunak gai izango dira Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan irakasle jarduteko.
- 2.- Graduiko titulua eskuratzea da diziplinako eta diziplinarteko ikerkuntza-karrerarako gaitasuna hartzeko lehen urratsa: bai Filosofiako diziplinarako, hertsiki, master eta doktorego tituluen bidez, baita humanitate, gizarte zientzia, zientzia natural eta formaletako beste aukera batzuetarako ere.
- 3.- Profil balioaniztuna, etika aplikatua eta kulturaren eta informazioaren kudeaketan. Profil honen bidez, Filosofiako gradudunak aukera izango du, lan-jarduera irakaskuntzan eta ikerkuntzan gauzatzeko ez ezik, erakundeen eta enpresen esparruan lan egiteko ere, askotariko arlo eta eremuetan; adibidez argialetxeetan, Fundazioen administrazioan, funtzio publikoan, kudeaketa eta bitartekotza kulturean, aholkularitza-bulegoetan, zerbitzu zibiletan, gizarte-ongizatean, informazioaren teknologietan eta baita harreman publikoetan ere. Askotariko arloetan aholkulari gisa jarduteko gaitasuna ere izango du Filosofiako gradudunak, bai etika-batzordeetan (bioetika, deontologia) edo enpresen gizarteerantzukizun korporatiboko batzordeetan, baita komunikazio-bulegoetan ere (politika, publizitatea) edo arte kritika lantzen dutenetan (prentsa, zinema), erakunde publiko, kultural eta sozialekin lankidetzan, nahiz enpresen giza baliabideen bulegoetan. Azkenik, aipatzekoa da hainbat fenomeno berriren ondorioz -adibidez immigrazioaren ondorioz-, gero eta beharrezkoagoak direla askotariko bizipen eta kultura-jatorrietan oinarrituriko pentsaera eta ikuspegiaren arteko bitartekaritza egiteko pertsonak, integrazioarekin loturiko gatazkei irtenbide egokiak eman ahal izateko.

Profil balioaniztun hau garatzeko, borondatezko praktiken sare bat diseinatu da. Bestalde, profil horrekin loturiko hainbat gai zuzen-zuzenean lantzen dituzte hautazko 5 ikasgaiak: Filosofia eta Literatura; Filosofia, Zientzia eta Gizartea; Zientzien Filosofia eta Historia; Justizia eta Eskubi-deak, XXI. Mendean; Garaiko Eztatbaida Etikoak.

■ LAN-MUNDUAN SARTZEA

Filosofiako gradudunak bi bide nagusitatik sartu izan dira, orain artean, lan-munduan: irakaskuntza-jardueraren bidez eta ikerkuntza-jardueraren bidez. Filosofiako gradu berrirako proposamenan, lan-munduan sartzeko bi bide horiek kontuan hartu dira. Bi horiei beste bat erantsi zaie, ordea, hirugarrena: profil balioaniztuna (ikus GRADUDUNAREN PROFILA atala). Bide berri horren bidez, zabaldu egin nahi da Filosofiako gradudunek lanean hasteko dituzten aukeren esparrua.

Lan-munduan sartzeari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikus honako dokumentu hau, UPV/EHUren webgunean:

http://www.irakasleak.ehu.es/p253-content/es/contenidos/estadistica/insercion_laboral/es_inserlab/contenidos/estadistica/insercion_laboral/es_inserlab/adjuntos/08_Inserción%20Laboral.xls

■ EZARPEN-KRONOLOGIA

1. maila: 2010/11
2. maila: 2011/12
3. maila: 2012/13
4. maila: 2013/14

IKASGAIEIEN BANAKETA MODULU ETA IKASTURTEZ

	K 1		K 2		K3		K4	
	1. LAUHILEKOA	2. LAUHILEKOA	1. LAUHILEKOA	2. LAUHILEKOA	1. LAUHILEKOA	2. LAUHILEKOA	1. LAUHILEKOA	2. LAUHILEKOA
	M1- Gizarte Zientziak	<ul style="list-style-type: none"> • Antropo. Sarrera I • Soziologia 	<ul style="list-style-type: none"> • Antropo. Oi. Testuak • Antropo. Sarrera II 					
M2 - Filosofia	<ul style="list-style-type: none"> • F^a Sarrera I • F^a Oi Testuak 	<ul style="list-style-type: none"> • F^a Sarrera II • Ética 						
M3 - Historia	<ul style="list-style-type: none"> • Pentsamenduaren H^a I 	<ul style="list-style-type: none"> • Pentsamenduaren H^a II 						
M4 - Logika			<ul style="list-style-type: none"> • Logika I 	<ul style="list-style-type: none"> • Logika II 				
M5 - EtiKa eta Filosofia Politikoa			<ul style="list-style-type: none"> • Filosofia Politikoa I 	<ul style="list-style-type: none"> • Etika II 	<ul style="list-style-type: none"> • F^a Politikoa II 			
M6 - Estetika eta Arteen Teoria			<ul style="list-style-type: none"> • Estetika eta Arteen Teoria I 			<ul style="list-style-type: none"> • Estética y Teoría de las artes II 		
M7 – Filosofiaren Historia			<ul style="list-style-type: none"> • Antzinaroko F^aren H^a • Hizkuntza klasikoa 	<ul style="list-style-type: none"> • Erdi Aroko F^aren H^a 	<ul style="list-style-type: none"> • Aro Berriko F^aren H^a 	<ul style="list-style-type: none"> • H^a de la filosofía contemporánea 		
M8 – Hizkuntzaren Filosofia				<ul style="list-style-type: none"> • Hizkuntzaren F^a I 	<ul style="list-style-type: none"> • Hizkuntzaren F^a II 			
M9 – Ezaugaren Teoria				<ul style="list-style-type: none"> • Ezagutzaren T^a I 		<ul style="list-style-type: none"> • T.C II 		
M10 – Zientzaren Filosofia					<ul style="list-style-type: none"> • Zientzaren F^a I 	<ul style="list-style-type: none"> • Zientzaren F^a II 		
M11 - Metafisika					<ul style="list-style-type: none"> • Metafisika I 	<ul style="list-style-type: none"> • Metafisika II 		
M12 - Filosofia praktikoa						<ul style="list-style-type: none"> • Etikari buruzko Eztabaidak • Justizia eta eskubideak XXI. m. 		
M13 - Logika, hizkuntza, zientzia eta Kultura						<ul style="list-style-type: none"> • Antropologia filosofikoa • Gogoaren F^a • Zientzien F^a eta H^a 	<ul style="list-style-type: none"> • F^a, Zientzia eta Gizartea • F^a, Logika eta hizkuntza 	
M14 – Estetikako auziak							<ul style="list-style-type: none"> • Estetika Garaikidea • F^a eta literatura 	
M15 – Filosofiaren Historiako Oinarrizko Obrak						<ul style="list-style-type: none"> • Antzinaro eta Erdi Aroko F^ako Oi. O. 	<ul style="list-style-type: none"> • F^a Garaikideko Oi. O. • Aro berriko F^ako Oi. O. 	
M16 - Euskara						<ul style="list-style-type: none"> • Euskararen Araua eta Erabilera 	<ul style="list-style-type: none"> • Komunikazio Euskaraz 	
M 17 – Gradu Amaierako Lana						<ul style="list-style-type: none"> • Gradu-amaierako lana 		